

Goierri

365. zenbakia

2009ko uztailak 17



**SANTANAZALEEK
500 URTE**



fotoetxe

www.fotoetxe.com

berogas

langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.
Instalazio industrialak eta etxeokak, eguzki-energia.
Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.
Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

Denda: Pº San Francisco, 10 – 20400 Tolosa
Tel.: 943 653 307
Tel. / Fax: 943 650 520
E-mail: muebles@berogas.com

Bulegoak: Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa
Tels.: 943 672 620 / 943 675 977
Fax: 943 675 421
E-mail: berogas@berogas.com

www.berogas.com



Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:
I. Fdez Ornaburu Dra.
(Medikuntza estetikoan masterra)
A. Ramirez Baigorri Dra.

Kursal
ZENTRO MEDIKUA
www.kursal.es

943 88 22 51


Garmendia Otaola, 7 - behea
BEASAIN

- GANTZA KIRURGIARIK GABE KENTZEN DUGU ultrasoinuen bidez

NOBEDADEA

ULTRASHAPE CONTOUR I Metodoa

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitia, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG



R.P.S.:32/04

BERTSOTAN

Tour-a



Julen Agirre

Tourra badator (e)ta jarri gaitu bere bide gurutzean doping-ak indar asko hartzen du urte sasoi hau heltzean (e)ta telebistak esandakora buru belarri jartzean bi lasterketa izango dira frantziar bide luzean bata kameran aurrean eta bestea berriz atzean.

Faboritoak ere badira eta hauxe da ordena Contador eta ondoren Armstrong Armstrong (e)ta Contadorrena hasi aurretik ezkutaturik daukate ia gehiena arrain handiak arrain txikia jatea da normalena baina ez dakigu kasu honetan zein den arrain handiena.

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierriko Hedabideak S.L.

Urbialde plaza, 7 - behea
BEASAIN

Posta elektronikoa:

goierritarra@goierrikohitza.info

Telefonoak:

Erredakzioa: 943 16 00 56

Faxa: 943 88 96 12

Publizitatea: 647 319 757

Harpidetzak: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Goierritarrak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Goierritarra

diruz laguntzen duten erakundeak:

Alzaga, Arama,

Itsasondo eta

Legorretakoko udalak



Gipuzkoako Foru Aldundia

AURKIBIDEA

4. Iritzia: Iñaki Murua.

5. Ingurugiro txokoa: Oiangu parkearen iragana, oraina eta geroa.

6. Euskara txukuntzen: Denetik (XXIV)

7. Aholkua: Jabego erregistroa eta katastroa.

8. Elkarrizketa: Santanazaleen eskudantzaren 500. urteurrena

13. Erreportajea: 'Ehunmilak', lasterketa bat baino gehiago.

18. Goierritar berriak: Hafafa Salah-k harategi musulmana ireki du Ordizian.

20. Gazteleku: Julen Agirre bertsolaria.

23. Non zer.

26. Argazki zaharra.



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística



Iñaki Murua

**Nola liteke
egun osoan,
telebistaz,
hainbeste aldiz
irudi berberak
edo
hurbilagotik
hartutakoak
eta abiada
motelean nabiz
borobil batean
espresuki
argiztaturik
ematea?**

Heriotzaren iragarritako kronika

(Gaur goizeko zortziak arte ezezagun bezain bizimodu patxadatsuan ibilitako "Ermitaño"ren adarrek sortutako gogoeta, uztailearen 12an).

San Ferminak. Iruñea. Ez dago ia beste konturik azken egunotan eta, zoritxarrez, plazako hondarretan hilko dituzten baino ordu batzuk lehena-go, ero moduan korrika noraezean doazen bitartean, bidea ikusten uzten ez dien hainbat eta hainbat, zezenek nola adarkatu dituzten ikusi "behar" izan dut berriro. Noski, arratsaldean ikusi ahal izango dut, zezena heriora eraman duena belarriak edo isatsa eskuetan, harro eta balentria egin duenaren aurpegi estasiatuarekin.

Goizean, eguerdian eta telebista piztuta ikusi dudak bakoitzean, ordea, neure antzeko bat nola adarkatzen zuen zezena eta trapu zahar gisara airean astinka nola zebilen animalia pintarratuak, beha egon naiz. Tarte batean, autobusa hartu behar izan dut eta han, berriz, ikusi baino gehiago "bizi" egin dut Iruñeraino propio berri ematera joan den esatariaren hitzetan, han gertatu dena: "Oraintxe, Zezen Plazako sarreran harrapatu du korrikari bat, gizonezkoa eta berrogei urte ingurukoa; zezenaren aurretik ihesi zihoala, honek ziztu bizian eta irristada luze bat eginaz, bi adarren artean hesiko oholen kontra estutu ondoren, ai-ai-ai-ai, behetik gora jaso eta buru astindu batean, izter atzean adarra sartu dio eta berriro bular aldean beste adarkada sakon bat -Hau hotzikara eta larria!- korrikalarien nahiei eta isats tiradei jaramonik egin gabe, segundo bakan batzuk hartu atsedenerako eta, hor ekin dio lurtean zetzanari gerrikotik airea jaso, galtzak zarratatu, ia erabat biluztu eta odolatan blai... badirudi badoala; bai badoa, eskerrak!"

Irratia itzaltzea nire esku ez zegoenez eta belarriak lo nagoela ere isten ez dakidanez, burua orain egiten ari naizen honetan pentsatzen jarri dut. Irudiak eta hitzak batu direnean, haserre eta mina sortu zaizkit. Haserre, ohitura arriskutsu horiek behar bezala gauzatzeko entrenamendurik eduki gabe eta asteburuko tra-goek piztuta, batere errurik ez duten abereen aurrean jartzeko bezain abere nola izan daitekeen gizakirik edo hala deiturik pentsatuta. Eta mina, han xehatuta ikusi dudak eta esatariak ñabardura guziekin adierazi didan lekukoaren egoerak eta sendiaren oinazeak, bai irudiak ikusiz biziko zutenagatik eta baita hil ala biziko trantzean pasa beharko dutenagatik ere. Eta gaitz-erdi onik ateratzen bada!

Baina minak ez dira hor bukatu, ez. Nola liteke egun osoan, telebistaz, hain-

beste aldiz irudi berberak edo hurbilagotik hartutakoak eta abiada motelean nahiz borobil batean espresuki argiztaturik ematea? Hori albiste mailan jartzea uler dezaket baina ez: hori zen albiste! Eta gertaera latz hori bihurtu da audientziak erakartzeko amu, aitzakia, arrazoi, motibo... aurrez festara apropos joanda zeuden putre guztiak aztoratzeko jaki. Berdin zion gero, haurren programazio ordutegian ala zein garaitan eman irudi horiek. Berdin dio zer eragin izan dezaketen. Helburua bat eta bakarra zen: audientzia harrapatzea. Audientzia ginen harrapakin.

Horregatik, egunotan entzun diot bat baino gehiagori nire inguruan, "gaur ikusi al duk entzierroa? Bai. Eta? Ba, ez duk ezer gertatu!" Gaur bezalakorik edo antzekorik jazo ez bada, "ba, ez duk ezer gertatu, adarkada bat eta kitto! Edo bi eta kitto!"

Imajinatzen al duzue A gripearen gaixoei buruzko albistea berdin tratatuko balute? "Berrogei urte inguruko gizonezkoa harrapatu du etxeko ate ondoan A gripearen birusak. Sudur-zulotik sartu zaio eta, lehenik bururantz igo eta begiak zuri-zuri utzi dizkio; ondoren biriketara jo du eta erabat saretu ondoren, egundoko odol jarria sortu eta handik..." Edo munduko gosearen kronika: "Gazte euskalduna, langabezian erori da bankuaren hipotekari ihesi doan bitartean, jasan duen gabezia ekonomikoaren ondorioz, zer janik gabe denbora dezente eman ondoren, goseak egundoko tripa zorriak sortu dizkio eta hesteak bihurritu korapilatu arte, estomagoa puxika eta heste lodia haizez beterik, ingurukoek ezer egiteko astirik izan baino lehen zerurantz airean ezkutu delarik..." Eta egun osoan behin eta berriz, kamera ezkutuekin eta abiada gutxituta nahiz berezkoan, gertaera horiek eman eta eman arituko balira? Askozaz pedagogikoago izan liteke eta haurren ordutegian ematera behartu behar lituzkete hedabideak, hauek gerora derrigorrez gainditu beharko dituzten langen erakusgarri eta ez kapritxozko jolas modura.

Ez dakit, dena eskolak konpondu behar omen du gizarte honetan. Dena hezkuntzaren eraginpean dago, baita krisia garaioan ere. Nahiz eta lehenengo presu-puestoak murrizten kultura eta hezkuntza izan. Baina, hezi eskolan eta eskolak bakarrik egiten al du? Zer ikusi hura ikasi! Ez da atzo goizeko esaera ba?

Oiangu parkearen iragana, oraina eta geroa

Oiangu, parke publikoa izan aurretik, nekazal eremua izan zen eta ordiziar askoren aisigune eta erromeri lekua, baita batzuren ehizalekua. Ordiziako Udalak 53'69 hektarea lur erosi zuen hirurogeitamarren hamarkadan, 28'7 hektarea parke publikoa bihurtuz, eta beste 23'99, Oiangu Txiki aldekoa, lehen bezala, nekazal eta abeltzain eremua izaten mantenduz.

Urteetan Azari ehiza elkartek usokume tiroketa txapelketak antolatu zituen bertan eta San Inazio eguneko erromeriak ere, baita 1984ean Munduko Sokatira txapelketa. 80. hamarkadan, Goierriko Asanblada Ekologistak, hango usokume tiroketen aurkako kanpaina martxan jarri zuen.

1988. urtean INEM delakoa eta Udalaren ekimenez, Oianguen lantegi eskola bertan ireki zen, hainbat lanbidetan herriko gazteak gaitzeko asmoz.

1990ean, lantegi eskolak, Oianguengo baserria, aterpetxea, taberna-jatetxea eta Ingurugiro Eskola bihurtu zituen. Ingurugiro eskolaren helburuak, pertsonen, kulturaren eta ingurugiroaren hartu-emanak ulertzeko gaitasun eta jarrerak bultzatu, jabetu eta kontzientziaztea izan ziren. Ibilbideak ere antolatu ziren: putzuko ekosistema, Oiangu Txiki baserria, landazabala eta taimainaz eta adinez garrantzi handikoa den hariztira. Orduan ere jolasguneak sortu zituzten, zuhaitz mota be-



rriak landatu, haltzak, urritzak, gerezioendoak, astigarrrak... eta ehiza zein usokume tiroketak Lazkaomendin egiten hasi. Garai hartako Udalak aitzindariak izan ziren eta hurrengo urteetan ere hainbat ekimen martxan jarri zituzten Oianguko natura babeste aldera.

Aspalditik ere, Ordizia eta Goierriko hainbat ikastetxek ingurumenarekiko ezagutza eta errespetua eta mendi orientazioa ere landu eta lantzen dute bertan, eta Gipuzkoako ikastetxe ugari ere Oiangu bisitatu dute, naturaz gozatu asmoz. Horrez gain, Goierriko irakasleen ingurumen prestakuntza ikastaro batzuk bertan burutu izan dira.

Gizatalde desberdinek ere, jubilatuek, mendi taldeek eta elkarte desberdinek urteetan ibilaldi eta ekitaldi desberdinak antolatu dituzte Oianguen.

2005ean Ordiziako Udalak, ordurarteko ibilbidea

alde batera utzita, Oianguen aisigune proiektua (golf, hotela, piztina...) onartu zuen, inongo partaidetza prozesurik gabe, legedia urratuz eta Tokiko Agenda 21eko konpromisuei muzin eginez.

Gaur egun, aisigune proiektuaren lehenengo fasea besterik ez dago martxan, baina irregulartasunez beterik, beharrezkoak diren baimenik gabe, zutoin toxikoekin, e.a. Onartutako proiektua ez da erabat garatu, Oiangu Publikoa eta Bizirik Plataforma eta Oiangu Parkea Bizirik Natur Elkarrekin martxan jarritako aurkako mugimenduari esker, baita krisiaren eraginez.

Etorkizunean, Oiangu izango dena, Udalaren erabakien ondorioa izango da, baina baita herritarren erabakiena, proiektu horren aurkako ekintzetan parte hartu eta boikot kanpaina jarraitu edo/eta zabalduz.

Eduarne Huesa Otegi

JAKIN BEHARREKOAK

Pirinioetako glaziarrek atzerakada handia. 1880-1894 urteen artean Franz Schrader Pirineotako glaziarrek zentsatu zituen, 1.779 hektareako azalera zuten. Ingurumen ministeritzak egin duen txostenean azaltzen denez gaur egungo azalera 206 hektareakoa da. Tenperaturak gora egin du eta euri gutxiago egin duenez %90 txikitu dira glaziarrek mende honetan. Planeta berotzen ari da eta 3.000mko kotan dauden glaziarrek urtzen ari dira.

Almeriako eskualdea da ustiapien ekologiko handiena duen probintzia, 35.000hektarea nekazaritza ekologikoa erabiltzen dute. Granadako diputazioak Fuente Vaquero saiakuntza etxaldean galtzeko arriskuan dauden bertako bariatateak landatuko dituzte. pipar, tomate eta tipula bariatateak haziko dituzte.

130eurotik hasita miniordenagailu ekologiko eta eramangarriak merkaturatuko ditu iUnika espainiar enpresak. karkaxa bioplastiko naturaqlakin egina dago eta eguzki energia erabil dezake produktu berrien garapena natura eta sozial kontzientziarekin. Toshiba 15 sustantzia kenduko ditu bere produktuetatik, arriskuak baitira bere toxikotasunarengatik eta naturan asko irauten dutelako

Denetik (XXIV)

Maizpide
euskaltegia

Baliatu da / baliatu du / baliatu zaio!

Kontuz, aizue, esan nahi dugunaren arabera aukeratu beharko dugu eta!

DA

Zerbait edo norbait erabili zer edo zer egiteko. “-z” behar du aditzaren ondoko hitzak:

- ✓ George W. Bush indarraz baliatu zen Afganistanen zein Iraken muturra sartzeko (egokia)
- ✓ Nafarroako Gobernua AENA erakundeak egindako txostenean aipatutako interferentziez baliatu da Iruñerriko euskarazko irratiak isilarazteko (egokia)

DU

“Erabili” adierazi nahi dugunean:

- ✓ “Valle de los caídos” ezaguna egiteko preso errepublikazale askoren eskuak baliatu zituzten Francisco Franco Bahamondek eta enparauek (egokia)
- ✓ Txosten horretako hainbat orri baliatu ditu Baltasar Garzonek hainbat gazte epaitzeko (egokia)

ZAIO

Norbaiti zerbait baliagarri gertatzen zaionean:

- ✓ 2001etik 2008ra bitartean AEBetako presidente izan zen Bush-i suntsipen handiko armei buruzko CIAren txostena baliatu zitzaion Irakeko petrolioak kontrolatu eta usiatzeko (egokia)
- ✓ Bautista Barandallari ez zaio duela gutxi arte batere baliatu gaixotasun larria izatea espetxetik ateratzeko (egokia)

Hori “sonatzen” zait, horrek “sonatzen” dit...

Jexux, Marie eta Joxe... Patxi Zubizarreta idazle ordiziar bikainak esango lukeen bezala! Zenbat aldiz entzun ote dugu kalean “sonatu” itsusi hori! Tamalez, behar baino gehiagotan, batez ere gaztetxo askoren ahotan! Honela esan besterik ez dugu, lagunok:

- ✓ - Kepa Sakolegi ezagutzen al duk?
- Kepa Sakolegi? Izen hori ezaguna egiten zaidak, motel! (egokia)
- ✓ - Kepa Sakolegi ezagutzen al dun?
- Badinat, bai, mutil horren aditzera! (egokia)
- ✗ - Kepa Sakolegi ezagutzen al dun?
- Ez dakit, sonatzen dit izen horrek... (desegokia)

OHARRA: aurreko lerroetan hitz (aditz) hori baztertu izanak ez du esan nahi euskaraz ez denik edo existitzen ez duenik. Adjektiboa da, famatu, ospetsu hitzen parekoa! Bestalde, “sonatu” horri bestelako gehigarriak ere eransten dizkiogu. Ikusi, bestela, ondorengo esaldia:

- ✗ Hitz hori gaizki sonatzen zait (desegokia)
 - ✗ Hitz horrek gaizki sonatzen dit (desegokia)
- Horrela esan besterik ez genuen:
- ✓ Hitz horrek gaizki jotzen dit belarrira! (egokia)

“Kastillopranko” izena entzuna al huen lehenago, Leire?

Ezaguna egiten zitzaidan, baina ez nekien hain gaiztoa zela, ia “Dar-dar” ipuineko deabrua bezain gaiztoa!



Joxe Goikoetxea euskal ipuinez baliatzen da bere alabari istorioak kontatzeko!

Zuzendu, behar izanez gero...

1. Gazte txantxazale asko Kepa Sakolegi eta Miren Amiano bezalako izen-abizenek baliatzen dira lagunei adarra jotzeko!
2. Sonatua izan zen Eskoziako lapurreta hura, Kattalin!
3. Enpresaburu horren bizkartzaina burutik jota dago, ez da batere naturala; izan ere, boxeolaria zenean kolpe ugari jaso zuen buruan... (gaztelaniaz “ese boxeador está sonado” esateko).
4. Bada, Fermin, boxeolari horren izenak ez dit sonatzen!

OHARRA: denak zuzenak, laugarrena izan ezik (“Boxeolari horren izena ez zait ezaguna egiten” edo “ez dut boxeolari horren aditzera” behar du).



kutxa

Beste modu batera ikasteko aukera

AHOLKUA

Gizartean azken urteetan gauzak asko aldatu dira, aldaketa hauek inoiz baino nabariagoak izan dira. Ikuspuntu zabalagoa dugu, gure herrian pasatzen denari buruzko informazioa bezain eskuragarri dugu Indiako Kalkuta herrian pasatzen dena.

Ikasteko desioak, gauza berriak ezagutzeko aukera ematen digu. Jaiotzen garen momentutik motor txiki bat pizten da eta hau ez da inoiz itzaltzen. Pertsona bakoitzak bere modura ikasten du, ez dago mailarik, azkarragorik edo motelagorik, pertsona desberdinak besterik ez. Egoera eta baldintza desberdinak besterik ez.

Gai desberdinen inguruan talde bat sortzen dugu urtero. Beraien artean amankomunean duten gauza bakarra adina da. 50 urte baino gehiago izatea da baldintza bakarra.

Gure helburua pertsonak bere inguruan pasatzen denarekin lotzea da, jakin mina piztea, hainbeste gauza daude ikasteko, konpartitzeko, eta guk horretarako tresna bat eskuragarri jartzen dugu: Goierri eta Urola Garaiko Esperientzia eskola.

Informazio gehiago izan nahi baduzu, deitu inongo konpromisorik gabe. Harremanetarako telefono zenbakiak: Goieki 943 161537 edo Ugasa 943 725829.



ondoeta

**GARAJE INDUSTRIA ETA FAMILIARTEKO
ETXEBIZITZETARAKO ATE METALIKOETAN
ESPEZIALDUA, ESKUZKOAK ETA AUTOMATIKOAK**

E-mail: ondoeta@ondoeta.com www.ondoeta.com

© 943 88 31 02 - 943 88 74 51 Faxa: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA



ARANDIA GARAJE A



Autoen
konponketa

N-1, z/g Iurre Auzoa
OLABERRIA
☎ 943 88 09 47

J. Carlos Guerra 1
Tel. 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai 16
Tel. 943 76 15 75
BERGARA

C/ Nueva 15 - GROS
Tel. 943 32 66 49
DONOSTIA

Bidebarrieta 2
Tel. 943 20 05 22
EIBAR

Koldo Mitxelena, 7
Tel. 943 51 78 11
ERRETERIA

Mendibil M. G.
Tel. 943 63 99 01
IRUN

J.M. Barandiaran Enp.
Tel. 943 88 99 88
ORDIZIA

San Frantzisko 23
Tel. 943 69 84 70
TOLOSA

kristalak barne

77

euro

mó

MULTIOPTICAS

www.multiopticasgipuzkoa.com

diseinuzko
mila eta bat
betaurreko
prezio berean

Eskaintza hau indarrean egongo da 09/12/13 ira arte.
Ezin daiteke beste eskaintza edo promozio batzuekin elkarrekin erabili.



Santanazaleen eskudantzaren 500. urteurrena

*Urteroko eskudantzaz gain, uztailaren 26an, saio berezia
egingo da, belaunaldi ezberdinak elkartzuz*

Ezkonberriek, santanazaleen eskudantzaren parte hartzeko tradizioa dago Ordizian. 500 urte dituen tradizioa, hain zuzen ere. Garai ezberdinetara moldatuz joan den eskudantza hau osasuntsu iri-

tsi da 500. urteurrenera. Belaunaldi ezberdinek elkarrekin ospatuko dute urteurrena uztailaren 26an. Batzorde berezia sortu da antolakuntzarako. Joseba Juarez dantza irakaslea izan dugu bozeramalea.

SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA

Mota guztietako
gida-baimenak

Aita Urdaneta

ORDIZIA

☎ 943 88 72 76



MENDIZABAL
abeltzaintza


Baserriko haragia salmenta zuzena

686 325 511- Juan Antonio

686 301 313- Maria Luisa

www.baserrikoharagia.com

Mendizabal Baserria
20.248-Arama (Gipuzkoa)



MUJIKA
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94

Kale Nagusia, 19 ORDIZIA

Santanazale eskudantzar en 500. urteurrena ospatuko duzue aurten.

500. urteurreuna esaten dugunean, aurkitu den lehenengo idatzia egiten diogu erreferentzia. Badirudi hiru akta liburu deudela eta batean erreferentzi egiten da, 1509ko uztailaren 26an, aurreko urteko aktak berritzen direla. Aurreragokoa ere badela esan nahi du horrek baina dataren bat jartzearen, eta zaharrena, hori denez, horrekin ari gara jokatzeko. Zaldibiako Jose Garmendia Arruabarrenak aurkitutako agiria da. Ordenantza batzuk dira.

Urtemuga potoloa denez, zerbait berezia egin behar ezta?

Bai hala da. Urteurren guztiak hartzen ditugu gustura baina 500 ez da nolanahikoa, eta zerbait egitea eskatzen du. Uztailaren 26an, eskudantza berezia egingo da 27an, urterokoa. Nik usate dut, urtez urtekoa, ikutu gabe, bere horretan utzi behar dela, hori baita tradizioa daukana. Beraz, bere horretan utziko dugu. Berezia zer egin? Akta liburua hartu da eta azkeneko 100 urtetan, auresku eta atzesku izan diren guztien izenak atera dira. Gertatzen dena da, gizonetzkoena bakarrik dagoela. Azkenaldian, partaide guztiek sinatzen dute baina lehen, auresku eta atzesku zein diren azaltzen ziren bakarrik. Orain arte parte hartu duten auresku eta atzeskuei deia egin zaie, gonbidapena egin zaie. 26 bikotek eman dute izena. Horiek, beste soka bat ateratzea nahi dugu, eskudantza bera den bezala egingo dugu. Hamarkada bakoitzeko aukeraketa bat egin eta bukaeran omenaldi bezala edo, hamarkadako bakoitzak agurra dantzatuko luke.

Protagonista izaten dutenak, auresku eta atzesku izaten dira. Gero, maiordomoa eta lehenengo



Batzordea lanean

Santanazaleen eskudantzaren 500. urteurrena ospatzeko aitzakian, batzorde bat sortu da Ordizian. “Urte hasieratik elkartzeko gara. Gehienak gabiltzak, Udaleko kulturako teknikariak, dantza maisuak eta musikariak gabiltza batez ere”.

eta bigarren damak izaten dira. Aukeraketa egin beharra dago. Ezin dena da, izugarritzko soka atera. Denei luzatu diegu gonbidapena ikustera gerturatzeke. Baina eskudantza batean ezin dute denek parte hartu, bestela herri guztia aterako litzaiteke. Hori ezinezkoa da, mugatu egin dugu.

Kasu batzutan, familia osoa aterako da. Bitxikeria: Madrazo eta Itziar, aitak, auresku eta atzesku izan ziren. Handik urte batzutura, semeak ere, biak urte berean, auresku eta atzesku izan ziren. Detailtxo politak dira.

Zu, zerorri, ordiziarra zara baina dantzaria ere

bai. Esanahi eta poztasun bikoitza izango du ezta?

Bai. Dantzak pisu handia izan du, eta berriz ere hartzen ari da Goierri mailan. Juan Inazio Iztueta zaldibitarra hor daukagu eta bere garaian dantzari buruzko azterketa eta ikerketa gehienak egin dituen izan zen. Daukagun materialik zaharrenetarikoa, berea da. Dantza guztien zerrenda egiten du, nola dantzatu behar diren, batzuk txistuz... berak asko hitz egiten du Gipuzkoan nola dantzan egiten den baina bere eskola, bere erakusketak, Goierrikoak ziren. Dantza askoren exekuzioa, hemendik zabaldu da kanpora. Horrelako gau-

zak kontserbatzea eta dantzari bat bezala parte hartzea, badu pisua.

Ezkonberrien sokadantza da santanazaleena. Beste inon egiten al da?

Nik dakidala ez. Lekeition antzeko zerbait bada, antzekotasunak izan ditzake, baina ezkonduena bakarra da. **Manilako mantoia da eskudantza honen ezaugarrietariko bat. Urdanetak ekarritakoak direla esan izan da.**

Kuriositatez, 500. urteurrenak, batera dira. Ez dakiguna da, eskudantza lehenagokoa dena ala ez. Ezer garbirik ez daukazunean eta hipotesiei inork ez dienean kontra eramaten, zergatik ez. Urte askotako hipotesia denean... ez da zientzia zehatz bat, baina esaten da, balitekeela Urdanetak, bidaietariko batean, herriari egindako ofrenda izatea. Koinziditzen du. Ezin dugu, dena, zintzilik utzi. Mantoiek dotorezia ematen diote. Beste batzuek diote, lehen amonek erabiltzen zuten zortzi puntako zapia ordeztzeko zela,

Aakta liburuan 1509ko uztailaren 26an, aurreko aktak berritzen direla esaten da. Aurreragokoa ere badela esan nahi du horrek.

kolore pixka bat sortzeko.
Aldaketa asko izan al dira?

Detailtxo batzuk aldatu dira, baina askorik ez. Dena den, zehaztasun bat egin egin behar da: Santanazaleaz hitz egiten dugunean, plazan egiten den eskudantzara bakarrik finkatzen gara. Baina Santanazaleak, goizetik biltzen dira udaletxean. Mantoia ondo jarri, prestatu eta elizara joan behar dute. Santa Ana kofradia denez, elizara joan behar dute, hortik datorren kofradia delako. Betebehar bat dago: elizara joan behar da eta meza entzun behar da. Alkateak bideratuta joaten dira. Itzuleran, kofradiaren bilera bat egiten da: akta irakurtzen da eta aurreko urteko auresku eta atzeskuek onartzen dute erreleboa ematea. Maiordomo berriak sartuko dira sinatzera eta erreleboa ematen da. Akta sinatu eta ondoren, plazara ateratzen da dantzara.

Aktak edo testuak zer dio?

Ez dakit, beste azterketa bat egiteko gaia da hori. Azkeneko aktak, oso zehatzak dira, garbia dira, ez da asko zehazten. Akta zaharrak berreskuratu nahi dira. Oso hizkera zaila daukate eta lan asko dago. Lan hori prestatu nahi dugu, ea informazio gehiago atera ote dezakegun.

Argazki zaharrak ikusita, aldaketak ikusten dira. Jantziak da beharbada nabarmenena. Korbata eta trajea izatetik, maoizko prakekin dantza egitera pasatu zen.

Ahoz aho pasatu den tradizioa da. Idatzita zerbait egon liteke baina orokorrean, gizon dantza edo eskudantza. Santanazaleena, asko ez. Ahoz aho pasatzen denean, beti daude galera batzuk. Argazki bildumarekin egin dugun beste lan bat hori da. Informazio asko ateratzen da. 1940. urte-



tik honuntza argazki dezentte bildu ditugu, ia urtez urtekoak. Argazkiak ikusiz, dantzaren eboluzioan aldaketa txiki batzuk ikusten dira. Detailak. Arroparena asko aldatu da. Argazkirik zaharrenetan, denak, ezkontzako arrokekin doaz. Oso dotore. 70eko hamarkada erdialdera arte mantendu zen. Hor dator aldaketa. 70eko hamarkada hori oso zaila izan zen. Bikote gutxi animatzen ziren. Ezkontza arroparekin joan behar zirela esanez gero, beharbada inor gabe geldituko ziren. Bikoteak bi aldiz ere ateraziren, tradizioa gal ez zedin. Garaietara moldatu behar da. Nik uste dut ahailegin on bat izan zela, ez baita galdu. Ez dagoela

esan eta galtzen utzi liteke, baina ez da hori gertatu.

Ezkontzako jantziekin ateratzea al da baldintza?

Ordura arte hori zen baldintza. 70eko hamarkadan behar kada eman zen: bikote gutxiagok ematen dute izena, galdu ez dadin bi urtez atera ziren hainbat bikote... moldaera batzuk ikusten dira. Hor baita ere ikusten dugu, ordura arte mantendu zela, herriari itzulia ematea. Udaletxean bukatzen zen esker oneko agur batekin eta mokadutxoak janz. Behin hori bukatuta, etxera laguntzen zitzairen bi damei eta etxeko atarian, dantza bat egiten zitzairen, zortziko bat. 70eko hamarkada horretan galdu egin zen ohitura. Aurten, sinbolikoki, be-

rreskuratu egin nahi dugu eta ea lortzen dugun.

Gaur egun, berriz ere gorakada izan du: bikote askok ematen dute izena eta animoz ikusten dira.

Gaur egun ezkontza mota ezberdinak ditugu. Horretara ere moldatu behar izan al dugu?

Tokatzen denean moldatu behar izaten da. Lehen gehienak, elizaz ezkontutakoak izango ziren. Gaur egun zibilez ezkontutakoak ere badaude, bigarren aldiz ezkontzen direnak... Inoiz planteatu ez den gai bat da eta ez dugu legedi bat egin. Gauzak naturalki joan dira. Hori bai, denei esaten zaie, nahi duten iritzia edukiko dutela, baina egun horretan, elizara joatea derrigorrezkoa dela.

Adibidez, bikote homosexualak parte hartu izan al dute?

Oraindik ez da inor azaldu. Inoiz tokatuko balitz, zer gertatuko litzateke? Askotan galdetzen diogu gure buruari. Gertatzen denean erabakiko da. Ez gaude itxita, legedi bat ez daukagu.

Argazkirik zaharrenetan, denak,
ezkontzako arrokekin doaz. Oso dotore.
70eko hamarkada erdialdera arte
mantendu zen ohitura hori.



Hainbeste urte iraun badi, egoera berrietara egoitzen jakin izan duela izango zen ezta?

Bai, nik uste dut horrela izan dela. Tradizio batek hainbeste urte irauteko, garaian garaian bere moldaerak izango zituela. Lehen aipatu dugun arroparena adibidez. Orain beste aldaketa bat izan da. Badira urte batzuk, formaldu egin dugu: praka beltzak eta alkandora zuria eskatzen dugu. Beste itxura bat hartzen du. Ema-

kumeak Manilako mantoiekin joatea ez da galdu. Emakumea hain galant jantzita baldin badoa, gizonak lagundu beharko du. Orokorrean beste seriotasun bat ematen dio, pisu gehiago ematen dio tradizioari.

Irizpiderik ba al dago aurreskua, atzeskua eta dantmak aukeratzeko?

Bai, jarraitzen ditugu irizpide batzuk. Alkatea edo alkatesa izan baldin bazara eskubidea daukazu izateko; lehentasuna dute. Bigarre-

nik aukera izango dutenak, alkate-alkatesaren seme-alabak izango dira. Hirugarrenik, Santanazaleen dantza irakasleek. Ondoren sartuko ginatke, herritarrena zein den erabakitzen. Ez da arazorik izaten baina ondo dago irizpide bat edukitzea, egunen batean arazorik izanez gero. Hori bai, baldintza nagusia ordiziarra izatea da.

Osasuntsu dago santanazaleen eskudantza?

Bai. Aurten ere 15 bikotek

eman dute izena. 15 bikote, 30 pertsona dira. Soka osoa osatzen denean, plazabetea da. Izan ditugu bikote askoko urteak. Baina orain ere, nahiko maila altuan gaude.

Zer esan nahi du santanazaleen dantzak?

Santa Ana kofradia, elizbarrutiko zerbait da. Heriotzean edo gaixotasun momentuan laguntzeko zerbait da. Urtetik urtera, aginteak ordezkatzeko joango ziren eta berritze bat ematen denean, horren ospakizun modura,



Eskudantzan parte hartuz, herritar ezkondu ofizial bezala sentitzera zara. Herriari, ezkonduta zaudela ezagutzera ematen diozu.

esaten da kalean egiten den errittoa dela. Zerbait berritu da eta ospakizun modura kalera ateratzen dira eta garai hartan oso posible da dantzara irtetzea. Hortik etorri liteke.

Ordiziarrentzat pisua du santanazaleek. Elizaz edo zibilez ezkontzen zarenean, ezagutza ematen zara ezkondua zarela. Herriak jakiten du, baina ordiziarrentzat badago eman beharreko beste pausu bat: herrian aurkeztu behar zara eta herrian, eskudantzan parte hartuz, herritar ezkondu ofizial bezala sentitzen zara. Sendotasun bat hartzen da.

Dantzariak, lehengoak ala oraingoak dira hobeak?

Ez dakit. Nire pentsakerak izan daitezke, baina lehen-

lehen normalagoa zen akaso edozeinek dantzan jakitea. Fandangoa eta arin-arina, bukaeran egiten dena, lehen ez zen erakusten. Suposatzen zen denek zekitelako. Gerora, bikoteek arazoak izan dituzte, dantzan ez jakiteagatik azaldu ez direnak. 1997-98 inguru horretan, irakasten ari zirenek, laguntza eskatu ziguten Jakintza dantza taldekoei eta fandangoa eta arin-arina erakusten hasi ginen santanazaleei. Orduan Enrike Lacalle hasi zen. Pixkanaka-pixkanaka sartu zen, orduan irakasle izan zirenek erreleboa pasatzeko bidea ikusi zutenean, Enrikeri pasatu zioten eta Enrikerekin batera, ni neroni eta Gurutz Ojanguren ere bai. Uste dut urte batzutarako bagaudela.



Joseba Juarez dantza irakaslea.



Erakusketa eta argitalpena

Uztailaren 16an hasita, D'Elikatuzen, Santanazaleei buruzko argazki erakusketa izango da ikusgai. Herritarrei deia egin eta urte ezberdinetako argazkiak berreskuratu dituzte. Argazkiak bildu, txukundu eta ordenatu dituzte. Horrekin batera, informazio ugari ateratzea ere lortu dute. Argazkiez gain, Urte ezberdinetako bideoak ere berreskuratu dituzte. “Dantza bera burutzen den hariari jarraituz, atalka-atalka osatuko dugu erakusketa. Mantoiak oso erakargarriak direnez, batzuk erakusgai jarriko ditugu”, zehaztu du Joseba Juarezek.

Bildu duten material guztiarekin, argitalpen bat ere egingo dute abendura aldera. “Materiala egon badago, baina oso sakabanatuta. Material dena bildu, ondo txukundu eta argitaratu egingo dugu, gehienbat, mundu honetan jarraitzen dugunontzat eta jarraituko dutenentzat, dokumentazio osatu bat uzteko. Informazio asko lortzen ari gara. Gehiena ahozko tradizioa da. Beraz, 500. urteurrena aprobetxatuz, garaian gaude, aurreko dantza maisua, gaur egungoak, musikariak eta udal teknikariak gaudenez, egindako ikerketak bilduko ditugu”.

Zapia

500. urteurrenaren harira, zapi berezi bat prestatzen ari dira Juarezek aurreratu digunez. “Sokadantzaren ezaugarria da, gizon-emakumeen arteko lotura, zapiaren bitartekoa da, Elizaren eraginez, elkarri eskurik ez ematearren. Zapi zuria betidanik erabili den zerbait da. Logotipo berezi batekin, bordatuta emango diegu parte hartzaileei, oroigarri bezala”.

167 eta 82 kilometrotako
bi lasterketa egingo dira
datorren urteko uztailaren
16an, Beasaindik hasita

‘Ehunmilak’, lasterketa bat baino gehiago

Urtebete falta da baina motorrak ondo berotuta dituzte Arrastaka Mendiko taldeko Ehunmilak sailak. Euskal Herrian antolatu den lehenengo ultratrail lasterketa Beasaindik abiatuko da 2010. urteko uztailaren 16an. 167 kilometroko lasterketa luzea eta hainbeste kilometroekin ausartzen ez direnentzako, Goierriko Bi Haundiak ere prestatu dute, Txindoki eta Aizkorri lotuko dituen 82 kilometroko lasterketa. Korrikaren aitzakian, Goierri, Gipuzkoa eta Euskal Herria ezagutzera eman nahi dute antolatzaileek, korrika lasterketa bat baino gehiago izatea nahi badute. Horretarako, erakunde ezberdinekin harremanetan dira Arrastakakoak.



Beasaingo Arrastaka Mendi Taldearen babesean, ari dira antolatzen. Erakunde eta talde ezberdinekin bilerak egiten, informazioa zabalitzen... lanean ari dira Ehunmilak-oak. Hau da, batetik, korrikalariak zirikatzeko, berotzen, beraien parte hartzea beharrezkoa baita; eta bestetik, proba antolatzeko boluntario eta laguntzaile bila. 1.500 boluntario beharko dira.

Mikel Valdivielso beasaindarra probaren ardura-dunetarikoa bat da. Ultratrail probetan parte hartua da bera ere eta beti izan du buruan Euskal Herrian ere horrelako proba bat antolatzeko. Probak lekuri izan dezakeen aztertuta, buru belarri antolaketa lanean

dabiltza. Eguna jarrita dago: 2010. urteko uztailak 16. Urtebete, justu. Atzerako kontaketa hasia dago. Agendan apuntatzeko eguna Valdivielsoren esanetan: “datorren urteko uztailaren 17ko goizaldeko ordu bata inguruan, Txindoki igotzen hasiko dira lehenengo korrikalariak. Frontalekin. Zoragarria izango da”.

Inguruan bakarra

Ultratrail probak, 100 kilometrotik gorako probak izaten dira. “Baina 100dik 167ra, salto handia dago, batez ere desnibetan. Mont Blacken, 19.000 metro inguruko desnibela du eta gureak 25.000 metro inguruko du. Hura baino gogorxeagoa da”, dio Valdivielsok.

“Eguneroko ogia, ogi bereziak eta pastel ezin hobeak”



K. Nagusia 35 BEASAIN
☎ 943 88 77 58

Elosegi, 14 LAZKAO
☎ 943 88 72 79

Sta. Maria, 19 ORDIZIA
☎ 943 16 00 44

ALDANONDO GARAJEA
MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak, alineazioa, aluminiozko llantak
Filtroak, olioak, engrasea
Frenu pastilak, tubo eskapeak, bateriak
Harezko txorrotadak



Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57



Goierriko Bi Haundiak. 82 km.

Beasain, Lazkaomendi, Zaldibia, Gaztelu, Txindoki, Ganbo, Lizarrusti, Etxegarate, Aizkorri, Andraitz, Zerain, Mutiloa, Liernia, Beasain.

Irteera: 2010eko uztailaren 16ko, gaueko 11etan, Beasaindik.

Ibilbide osoa egiteko gehieneko denbora: 22 ordu.

Partaide kopurua: gehienez, 1.000.



Inguruan ez dago ultra-trail probarik. "Estatu mailan ez dago horrelako karrerarik. 100 kilometrokoak badaude, Hiru Haundiak hor dago, baina modalitate honetan, hainbeste kilometro hainbesteko desnibeltan, penintsula guztian ez dago. Europa mailan, erreferentzi bezala, Ultratrail Mont Black daukagu, Chamonixen egiten dena, Mont Blacki buelta ematen zaiona. Bigarrena, gurea izango da. Gu han parte hartutakoak gara eta beti nahi izan dugu Euskal Herrian horrelako proba bat edukitzea. Uste genuelako, Euskal Herriak merezi duela horrelako proba bat", gaineratu du beasaindarrek.

Horrelako probetan, korrikalari beterranoen parte hartzen omen dute. "Cha-

monixera joaten baldin bazara horrelako proba bat ikustera, adinaren bat az bestekoa, 40-45 urte inguru izango da. Duela bi-hiru urte, 60 urteko pertsona batek irabazten zuen proba".

Kirola eta turismoa

Mikel Valdivielsok adierazi duenez, horrelako probetan parte hartzen dutenek beste filosofia bat izaten dute: "bizitzeko filosofia bat da. Korrikalariak ez dira lasterketa helburuarekin bakarrik etortzen, bidaia edo turismo helburua ere izaten dute. Frantses bat lasterketara hona etortzen baldin bada, bere oporrak, horren baitan planifikatuko ditu. Denontzat ona da hori, proba honek eragin turistiko bat ere izango duelako. Hori da atzerrian gertatzen dena.

Bizitzeko filosofia bat da. Korrikalariak ez dira lasterketa helburuarekin bakarrik etortzen, bidaia edo turismo helburu ere izaten dute.


Goierritarrentzat, erronka, egitea bera izan liteke, baina kanpotarrentzat, ikaragarri atsegina da horrelako paisaje ikusgarri batean korrika egitea.

Gu ere horrela joaten gara. Mont Blanc-eko lasterketara joaten nintzenean, astebeterako joaten nintzen Chamonixera. Proba, ostiralean hasten da, baina dorsal banaketa ostegunean izaten da, proba igandean bukatzen bada... lasterketak ia 4 egun ditu. Normalean, astebeterako joaten dira korrikalariak eta hori aprobetxatu beharra daukagu. Oso garbi daukagu, Beasain ez da Chamonix eta Txindoki ez da Mont Blanc. Euskal Herriak dauzkan ezaugarriak ezagutzera ematen saiatu behar gara. Garbi utzi behar dena da, ez dela Beasaingo proba bat, Euskal Herriko proba bat da. Gogor hartu behar dugu. Gure asmoa da lan garrantzitsua egitea, Euskal Herrian dauden aukerak azal-

duz. Aukerak eman, eta nolabaiteko erraztasunak eman bertan ibiltzeko".

Antolatzaileek, Ehunmilak proiektua ez dute kirol ekimen bat bakarrik bezala planteatu. "Honela planteatuko bagenu, oso mugatuta geldituko ginatke. Gaitasuna izan dugu, Gipuzkoako bost eskualde, proiektu baten alde lanean jartzeko: Debagoiena, Urola Kosta, Urola Garaia, Tolosaldea eta Goierri. Herri bakoitzetako taldeak ditugu proiektu honen alde. Hainbeste udalletek proiektuarekin bat egitearekin, lana asko gutxitzen zaigu eta aurrekontua ere bai. Linea bat markatu genuen hasiera-hasieratik eta oinarria ondo finkatzen ari gara, etorkizunean dantzaren ez ibiltzeko. Harrera ona ari gara edukitzen he-

ibilbide luzea



Euskal Herriko ultratrail. 167 km.

Beasain, Mandubia, Irimo, Hirukurutzeta, Erlo, Ernio, Txindoki, Ganbo, Lizarrusti, Etxegarate, Aizkorri, Andraitz, Liernia, Beasain.

Irteera: 2010eko uztailaren 16ko, arratsaldeko 6etan, Beasaindik.

Ibilbide osoa egiteko gehienezko denbora: 48 ordu.

Partaide kopurua: gehienez, 1.000.



rrietan. Boluntario asko ari gara elkartzen herrietan. Lasterketa egunean, 1.500 boluntario beharko ditugu”.

Gauzak honela, Goierri turismoaren arloa lantzen duen Goiturrekin harremanetan dauden Ehunmilakoak. “Goiturrekin lanean ari gara. Lenbur ere badago Urolan, Tolosaldean ere badago... Goiturrek hasieratik ikusi du proiektuan inplikatu beharra zeukala. Irailean kanpaina fuertea egingo dugu beraiekin. Guretzat

sektore inportante bat da. Beraien inplikazioa beharrezkoa dugu. 27 udaletxe inplikatu ditugun bezala. Eta ez da erraza eh? Banan-banan joan, proiektua azaldu, herritik bertatik pasatzen ez den karrera bat bul-tzatzea ez da erraza. Denak positibotzat ikusi dute proiektua eta egia esanda, oso arazo gutxi eduki dugu erakundeekin”.

Gipuzkoan barrena

Euskal Herriko izaera eman

nahi diote probari baina ibilbidea bera, Gipuzkoan izango da. Bost eskualde hartuko ditu: Goierri, Urola Garaia, Urola Kosta, Tolosaldea eta Debagoiena. Ibilbidea zehaztuta baldin badago ere, aldadaketaren bat edo beste izan daiteke Valdivielsoren arabera. “Beti nahiko garbi izan dugu ibilbidea zein izan behar zen. Hasieran ez geneukan asmorik Zumarragatik pasatzeko baina ikusi genuen leku inportantea izango ze-

la. Mila aukera zeuden. Bailara bakoitzeko leku garrantzitsuenak ikutzera joan gara azkenean. Bailara bat gelditu zaigu, Arrasate alde hori...Baina bestela, 200 kilometro inguruko proba egin beharko genuke. Baina pena ematen du Udala bezalako mendi bat jendeak karreran ez ezagutzea. Baina garbi geneukan, Aralar tik eta Aizkorritik pasatu behar zela, Erriotik ere bai, Erlo... Ibilbidea dena den bizirik dago oraindik. Herrietako obrak direla, Abiadura Handiko Trenaren obrak direla... Horrelako ezustekotara moldatu egin beharko gara”.

Korrikalariak ondo zaindu nahi dituzte. Mimat. “Gu kanpora joaten garenean, ordaindu behar izaten dugu eta korrikalari bezala, badakit zer eskatuko niokeen antolakuntza bati, erraztasun horiek ematea. Ibilbideko kiroldegi guztietan nahi duten lekuan ibiltzeko aukera emango diegu, dohainik. Igerilekua, gimnasioa... Gipuzkoan mugitu ahal izateko autobus zerbitzua ere jarri nahi dugu...”.

Ehun milia

Izenari buruz galdetu diogu. “Berez, ehun miliak beharko luke, cien millasen itzulpena. Ultra trailen erreferentzia puntu bat, ehun miliak izaten dira. 167 kilometroko karrera, ehun milia dira. Jendeak erreferentzia hori badauka. Guk hori bilatzen genuen. Estatu Batuetatik datorren kontzeptua da. Jendeak erraz identifikatzen du eta katxea ematen dio probari”.

Urtebete falta da lasterketa egunerako, baina korrikalarien artean sustapen lana egin ari dira. Dena den, sustapenik onena, gaur egun, internet delako dio Mikel Valdivielsok. Atzeritik bisita asko jasotzen ari dira, “600 bisita baino gehiago. Belgika, Holanda, Alemania, Luxemburgo, Frantzia, Italia, Suitza... Euskalduna jende ona da horrelako karrerentzako. Euskaldun gehiago aterako dira karrera motzean, baina luzean ere aterako dira, gehienbat etxean daukatelako. Jendeak beti izan du gogo horrelako karreretan parte hartzeko, baina beti atzerria joan behar izaten zen”.

Izena emateko epea, 2009ko abenduaren 1etik 2010 maiatzaren 1era bitartean izango da. “Abenduaren 1ean izena emateko epea irekitzen dugunean, orduan ikusiko dugu eta zein interes mota sortzeko gai izan garen”, aitortu du beasaindarrak.

Goitur, Niko Osinalde:

“Berezia izango denez, Estatu mailan eta nazioartean ere zabalkundea izango du”

Ehunmilak proiektuarekin bat egin du Goiturrek eta Goierriren turismoan izango duen eraginaz baikorra da. “Dauzkagun errekurtoekin, produktu bat asmatu dute turismo aktiboaren inguruan. Produktu hori Ehunmilak da eta produktu hori jendearengana iristeko erabiltzen ari diren kanalak eta honek izango duen oihartzuna, Zegamako maratoiarekin aprobetxatuta, izugarrikoa izango da. Garbi daukagu, Zegamako probarentzat osagarria dela eta elkar elikatu egiten direla. Parke Naturalak, Idiazabal gazta izan litekeen bezala, errekurtoak dira, baina errekurtsotik produktu bilakatzeko zerbait aprobetxatu behar duzu. Parke Naturaletan horrelako ibilbideak, BTTen ibilbidea, Artzaintzari inguruko ibilbide bat... Errekurtoak produktu bilakatu behar dituzu jendeak kontsumitzeko, kakotx artean. Daukagun elementua aprobetxatu behar dugu, bertakoentzat eta kanpokoentzat”.

Osinaldek aitortu du, hasieran kezka izan zuela, datari dagokionean. “Antolatzaileak etorri zirenean, turismo aldetik galdetu genuen, prestatuta geunden bai ala ez. Logistika aldetik antolakuntza oso lan ona egiten ari da. Turismo aldetik kezka hori bageneukan baina ondo antolatzen ari dira. Lehenengo egunean esan nien, egoistamente begiratuta, Goierrirentzat eta Euskal Herri osoarentzat zer suposatuko duen ikusita, datarik onenak ez direla. Gipuzkoan adibidez, uztailari begira kanpainak egiten ditugu eta astebukaera gehienak beteta izaten ditugu. Aste horretan ere, Sanferminak bukatzen dira eta Sanferminak bukatuta, atzerritar asko oraindik hemen gelditzen da. Kezka hori bai, baina nik uste dut nahiko ondo antolatuta dagoela dena. Urtebete daukagu, gauzak zuzentzeko”.

Beste kezka bat ere izan zuen Osinaldek. “Hasieran, nik ezer esan jakin gabe, Zegamako eta Ehunmilak proba berdina ote ziren galdetu diogu. Baina berehala konurtatu gara, erabat ezberdina dela, ez daukala inolako zerikusirik Zegamakoarekin. Bata bestearen osagarriak dira.



Zegamari lagundu zaion bezala, neurri berean lagunduko zaio Ehunmilari, ona delako Goierri, horrelako bi proba egitea, horrek suposatzen duen guztiarekin, batez ere kanpoko prentsaren aurrean. Bakarrak gara, Euskadin, bi parke natural ditugunak, eta ekintza honek boroildu egiten du. Bi Parke Naturalak ezagutzera emateko bide onak. Bi parke naturalak aipatzen ditugunean, Goierri osoa nahi dugu. Beraz, oso ondo iruditzen zaigu. Berezia izango denez, Estatu mailan eta nazioartean ere zabalkundea izango du”.



ZEGAMA

OKINDEGIA

Eskuz egindako ogi naturala
Intxausti eremua, 14G-14H nabeak
☎ 943 80 10 66 ZEGAMA

SALMENTA PUNTUAK:
Beasain: Oskarbi, Osña, Natxo dietetika, Ekilore. **Ordizia:** Sabino, Muño, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Lasa, Viaña eta Ainhua dietetika. **Legorreta:** Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. **Segura:** Erosle. **Idiazabal:** Joxan harategia. **Ormaiztegui:** Iñaki Erosle. **Zumarraga:** Rueda dendak, Centro 100. **Urretxue:** Dia. **Legazpi:** Jabi harategia, Izkuntza eta Patxo.

Zeure etxea dekoratzeko biderik laburrena

ibai ondo
barne diseinua
dekorazioa

Garai berrietarako
ideia berriak

Katea 5, Antzizar auzoa
Tel.: 943 16 40 40
BEASAIN

“Goierritar batentzat, Txindoki eta Aizkorri lotzea berezia da”

Data egokia al da?

Nire gusturako, beranduegi. Hemen badago proba bat, Hiru Haundiak, eta jakina osagarriak izan behar dute. Ekaineko ilargi betean egiten dute. Hurrengo urtean, ekainaren 26an da eta asko atzeratzen da gure proba. Fetxarik onena, ekaina da. Egunik luzeenak eta gaurik motzenak izaten dira garai horretan eta korrikalariak eskertu egiten du. 8 orduko gaua eduki edo 10 ordukoa eduki, korrikalariak nabaritu egiten du. Pentsatu behar duzue, korrikalariak frontalarekin joan behar dutela, ilunpetan, tentsio gehiago, bista ikaragarri nekatzen da... Baina Hiru Haundiak-en fetxa horrekin kontatu beharra daukagunez, gu mol-datu beharrean gaude, beraiek 21. edizioa baitute eta guk lehenengoa. Hurrengo ekitaldietan ikusiko dugu fetxa zehatz bat jartzen dugun, Hiru Haundiak proba-ri begiratu gabe. Adibidez, uztailerako hirugarren aste-burua.

Hiru Haundiak, bi urtean behin egiten da. Zuek zein asmo daukazue?

Urtero egiteko asmoa daukagu. Bi urtean behin eginez gero, arazo handiak egoten dira. Konexioa galdu egiten da, batez ere babesleekin. Babesleentzat, probarentzat eta korrikalari-entzako uste dut ez dela aukera egoki bat. Guk hiru aste gustura aurreratuko genuen proba, baina printzipioz ezin da.

Korrikalarien mugarik jarriko al duzue?

Mila partaide, proba bakoitzean. Ez karrerak onartzen ez dituelako, baizik eta Euskal Herriko zerbitzu maila txarra delako. Pen-



Mikel Valdivielso probaren arduradunetarikoa bat.

tsatu korrikalari bakoitzak, 3 laguntzaile ekartzen dituela. Dortsaleko, lau lagun. Non sartu behar ditugu? Beasainek zerbait ona baldin badauka, Euskal Herriko edozein puntutatik, ordubetean hemen zaudela da. Iruñatik ordu betean hemen zaude, Gasteiztik ere bai, Bilbotik... Ikerketa bat egin genuen Goiturrekin, eta esan zigun, data horretan, 2.500 ohe izango genituela libre, Euskal Herri guztian. Nafarroan Sanferminak dira, kostaldea ere zerbait baina... gutxi. Benetan libre gelditzen dena, Gipuzkoako inguru hau da. Zirkuitutik oso gertu jendeak lo egiteko aukera izango du. Badakigu proba motzaren bezerorik onena euskalduna izango dela eta bakoitza bere etxetik etorriko da, zerbitzu mailan ez da exigentea. Frantsesak ere, behar bada, Hendaia aldean geldituko dira, handik hona ordubete baitago.

Proba luzean, taldeka ere parte hartu daiteke, ezta?

Proba indibiduala da baina luzeak aukera ematen du

hiru pertsonatako taldeak egiteko. Horrelako probetan, elkartasun gehiago egoten da. Taldeak egiten dira. Taldeka lan asko egiten da. Hirunaka proba askoz ere hobeto eramaten da. Horrek esan nahi du, kontrol guztiak batera pasatu behar dituztela. Psikologikoki proba errazago eramaten da. Luzean dago taldeka egiteko aukera hori. Motzean ez dago aukera hori.

Goierritarrentzat erakargarria izan daiteke, Txindoki eta Aizkorri lotzea.

Proba luzea, zirrargarria da; motza ere bai. Motza ere zoragarria da: Euskal Herriko bi altxor nagusietatik pasatzen zara. Goierritar batentzat, Txindoki eta Aizkorri lotzea berezia da. Zaldibiatik barrena, Txindoki igo, Aralar zeharkatu, Enirio aldera jaitsi, Lizarrustiko baso guzti hori, Etxegarate eta Aizkorrin zaude. Goierritarrentzat, erronka, egitea bera izan liteke, baina kanpotarrentzat, ikaragarri atseгина da horrelako paisaje batean korrika egitea. Jendea leku berriak eza-

gutzea gustatzen zaio. Jendea aukera emanez gero, etorri egiten da. Bezerorik garrantzitsuena, frantsesa izango dela iruditzen zait. Gu baino 15 urte lehenago doaz horrelako probetan, kulturagatik. Eta horretaz gain, aldatzeko gogoia izaten dute beti.

Lasterketa luzea egiteko zenbat denbora beharko dute bizkorrenek?

Normalean, 23-25 orduren bueltan ibiliko dira lehenengoak. Ostiralean, arratsaldeko 6etan atera eta larunbatean, arratsaldeko 6ak aldera iritsiko dira lehenengoak. Dena den, gehienez, 48 ordu daude luzea egiteko. Tartean gutxieneko ordutegiak badi-tugu. Adibidez, Aizkorrin 40 ordutan doana, badakigu 8 ordutan ez dela ailegatuko. Kontroletan, automatikoki jendea deskalifikatu egingo da.

Lasterketa luzeko lehenengoek, motzeko azkenekoak harrapatuko dituzte Aizkorri pare horretan. Larunbatean, goizeko 9etatik aurrera, jendea iristen joango da, tantaka.

Hafaifa Salah aljeriarrak harategi musulmana ireki du Ordizian

Hafaifa Salah. Aljeria iparraldekoa da. 7 urte daramazki Goierriin. Emaztea eta hiru alabarekin bizi da Ordizian.

Musulmana da. Soldatzaile lanean aritu bada ere, langabezian egon da orain arte aljeriarra.

Dena den, lan berria du maiatzaren 25etik:

harakina da, dendaria. Halal harategia dauka.

Etorkinek irekitako dendak gero eta gehiago dira Goierriin ere. Bat gehiago dugu maiatzaren 25az geroztik. Goierriko lehenengo harategi musulmana ireki du Hafaif Salah aljeriarrak, Ordizian. Besteak beste, Halal haragia saltzen du Urdaneta kaleko harategian. Oilaskoa, arkumea eta txekor haragia saltzen du Hafaifak.

Soldatzaile bezala lana egin du aurretik. "Bi urtean asko jaitsi da eta langabezian egon naiz. Lanik ez dago. Garaiak aldatu dira. Orain arte ondo egon gara

baina orain ez. Zentimoz zentimo dirua aurreratu eta nire ametsa bete dut, harategia irekitzea", dio Salahk.

Halal haragia

Harategi berezia da. Txerrikirik ez dago Hafaifaren harategian. Bertan ikusten den haragia, itxuraz berdina bada ere, badu berezitasun bat: Halal haragia da.

Askok pentsatu izan dugu musulmanek ez dutela haragirik jaten. Baina ez da horrela: "guk haragia jaten dugu baina hiltzeko era ezberdina daukagu. Hemen,

hiltzean, pistola elektrikoarekin hiltzen dira abereak. Animaliak ez du sufritzen. Guk beste era batera egiten dugu: aldenik alde moztzen diegu lepoa, aitzoarekin, odol guztia ateratzeko. Beste zapore bat dauka haragiak. Halal deitzen zaio. Koranak agintzen du nola hil behar den. Hemen odola jan egiten duzue, guk ez. Hiru gauza dauzkagu debekatuta: Koranean jartzen du, ez daukagula eskubiderik, txerria eta odola jateko eta alkohola edateko", argitu

du Hafaifa Salahk.

Abere gazteak jaten dituzte. Arkumeari dagokionean, "lau hilabete baino gehiagokoak ezin dira hil. Txekorra berriz, 8 hilabete koak, gehiagokoak ez", zehaztu du.

Orain haragi freskoa jaten dute Hafaifaren alabek. Harategia ireki aurretik, Zumarragan dagoen harategira joan, aste osorako erosketa egin eta izozkailuan gordezen zuten. Tolosan ere badago beste Halal harategi bat.

Musulmanok haragia jaten dugu, halal haragia. Hiltzeko modu ezberdina erabiltzen dugu. Zuek pistola elektrikoarekin hiltzen dituzue abereak. Guk, aldenik alde lepoa moztzen diegu, aitzoarekin, odol guztia ateratzeko.



Iñusti
Hartz Klinika
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
602 Zbki. KOLEGIATUA

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN
☎ 943 88 46 28



mazda

Bikar, S. A.

☎ 943 889 296
Faxa: 943 887 952
N-1 errep. 419 Kma
BEASAIN




SILVIA MIRASCASAYAS
ODONTOLOGOA
KOL. Zka: 649 RPS: 223/07



TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

Munduko produktuak

Goierriin afrikar eta musulman gehiegirik ez dago baina bai munduko beste leku ezberdinetako jendea. Hafaifa Salahk denak hartu ditu kontuan eta munduko jaki eta produktu ezberdinen topaleku bilakatu du Halal harategia. Harategi soila baino askoz ere gehiago da. Denetik pixka bat dauka. “Bertako fruta eta barazkiekin batera, munduko herrialde ezberdinetako produktuak ere saltzen ditut: irin ezberdinak, kuxkuxa, arroz ezberdinak, teak, edariak eta herrialde ezberdinetako osagaiak”, dio aljeriarrak. Hego Amerikakoak, Errumaniakoak, Aljeriakoak, Marokokoak, Siria-koak... hemen bertakoak ere bai. “Frantzian atzeritar asko dago eta handik ekartzen ditut hainbat produktu”, gaineratu du. Fruta merkexeago jarri du. “Bilboko bidaia aprobetxatzen dut Merkabilbaotik fruta ekartzeko”.


Munduko txoko ezberdinetatik etorritako jendea gustura dago, beraien herrialdeko produktuak eros baitituzakete Goierriin bertan. Hasiberria da baina gustura dago, poliki-poliki, ahoz aho ari baita zabaltzen Hafaifaren negozioaren berri.

Egunero zabalik

Aste guztian edukitzen du irekita denda. “Larunbatean eta igandeetan lan gehiago egiten dut. Igandea izaten da egunik onena, beste denda guztiak itxita baitaude”.

Horrelako ekimen berrietarako dirulaguntzak izaten dira Inemetik eta Jaurlaritzatik. “Baina horretarako, lauzpabost hilabete pasatu behar dira. Oraindik dena nire poltsikotik jarri dut”, aitortu du.

Dena den, oso pozik dago. “Gustura. Libre. Poliki-poliki doa aurrera”, dio goierritar berriak.



Argazkirik ez

Musulman praktikatzailea da Hafaifa Salah. Bere erlijioak esaten duena zorrotz betetzen du. Argazkia ateratzeko esan diogunean ere hala esan digu: “Koranak ez digu argazkirik ateratzen uzten, pasaporterako bakarrik”. Hafaifari argazkia atera beharrean, dendari ateratu diogu.



Julen Agirre: “Oraindik ez dut posturarik aurkitu, zutik, bertsoan egiteko”

Julen Agirre. Beasaindarra. 22 urte ditu. Bertsolaria. 18 urterekin bertso zaletu zen. Parranda giroan hasi eta plazetan eta mahaiaren bueltan aritzen da bertsoan.

Gaur egun bertsolari gehienak, bertso eskoletan ibilitakoak dira. Zu, berriz, bertso eskolan ibili gabea zara. Hala da. Niri bertso zaleta-

suna, gerora etorri zait. Bertso eskoletan 11 urte ingururekin hasten dira, 14-15 urtera arte. Ni 18 urterekin hasi nintzen bertsoaz interesatzen eta 18 urterekin, ez nintzen hasi. Orduantxe hasi eta bertso eskolak ez ninduen erakartzen. Nire kasa hasi nintzen. Liburu batzuk baneuzkan etxean eta haiek irakurriz hasi nintzen. Gero itsutu egin nintzen. Asko irakurri, gero kantatzen hasi, koplaren bat ondo atera eta gero eta gehiago interesatzen hasten zara.

Non hasi zinen probak egiten, etxean ala parrandan?

Etxean, baina batez ere parrandan. Hiru bat lagun bertsozale badauzkat koadrilan. Gogoratzen naiz, kilometroak batzutan, bazkalondoren, patxarana edanez zelaian botata geundela hasi ginela.

Zure kasa aritzeaz gain, beste bertsolariekin harremanik ba al duzu?

Atera txapelketa egon zen eta Gaztetxetik esan zidaten, ea parte hartu nahi

nuen. Ikastera joan nintzen. Han ezagutu nituen Iñaki Apalategi, Aitor Sarriegi, Eguren.... Gero horiekin hasi nintzen eta oso-oso ondo. Asko lagundu didate.

Goierriko bertso eskolak 25 urte bete zituenean izan zen hori ezta?

Bai, 2007an izan zen hori. Lehenengo bi urtean, ni neroni prestatzen aritu nintzen eta aukera eduki nuenean, plazara atera nintzen. Ondo atera zen, finalera iritsi ginen.

Berezia izango zen herri



Andoni Egaña eta Joxe Agirre

Bertsolari bat, gaur egungo eta garai batekoa:

Gaur egungo bat esatekotan, zalantzarik ez dago: Andoni Egaña. Egañak egin dituen gauzak handiak dira. Hainbeste urtetan bertsotan segi eta segi. Oraindik ere zerbaitekin harritu egiten zaitu. Beste asko ere badaude: Iker Zubeldia, Aitzol Barandiaran...

Garai batekoetan, Joxe Agirre. Puntuaren erantzuna... Beti golpea jotzen du baina zuzenean ez, jendeari zer pentsatua emanek. Askok gustatzen zait.

Bertsotarako lagun bat:

Odei Lopez. Berarekin egin ditut saio batzuk, eta nahiz eta bertso onik ez bota, ondo pasatzen dut.

Gai mota bat:

Gaurkotasunezko gai bati iritzia ematea. Oso eroso sentitzen naiz horretan.

Bertsotan ari zarenean, eskuak non edukitzen dituzu? Aurrean, atzean, poltsikoan...

Oraindik ez dut posturarik bilatu. Lazkaon, aurrean jarri nituen baina estu samar bezala sentitzen nituen eskuak eta ez nintzen eroso aritu. Beasainen kantatu nuenean, atzean ere hasi nintzen jartzen. Ez dut posturarik finkatu. Zerbait berria atera beharko dugu igual. Mahaian, eserita zaudela, erraza da, baina zutik zailagoa da.

Mahaian egin ditudan saioetan askoz ere erosoago sentitu naiz eta ideiak-eta hobeto etortzen zaizkit. Zutik egindako saioetan orain arte ez naiz gustura aritu. Gaingitu beharreko zerbait izan beharko da.

Zutik entrenatu behar.

Legorretan gelditzen gara eta eserita, Ataunen ere bai... horretan hasi beharko gara bai.

arteko formato hori ezta?

Bai. Uste dut berriz egingo balitz, formalagoa izango zela, maila altuagoa egongo zela eta ez zen berdina izango. Baina orduan, edozein joaten zen, erdipurdi egiten genuenak joan ginen, denak balio zuen kasi. A ze poto pilo joan ziren! Hankaluzeak, hanka motzak... Pentsa zer nolako maila zegoen. Baina hain zen informala! Gure taldean, inoiz inon bertsotan egin gabekoak zeuden. Hala ere, nola edo hala kantatzen genuen. Horixe zen polita.

Atera! txapelketari esker atera zinen beraz. Aurrea segitzeko animatu zinen.

Dudarik ez daukat horretan.

Geroz eta gehiago. Nire kasa jarraitu nuen eta Legorretako Odei Lopezek esan zidan eta beste batzuekin gelditzen hasi ginen. Ainhoa Mujika ere etortzen zen. Haiek gelditzen hasi eta haiekin urtebete pasata gero, bertsolari bezala asko aurreratu nuela ikusi nuen. Errimen biltegia handitu egin nuen, neurriak hobeto eramaten nituen, doinuak ere bai... Oso gustura nengoen ni. Hortxe jarraitzen dugu.

Aurtengo urtean, Osinalde txapelketan ere aukera eman dizute.

Batek esan zidan ea parte hartu nahi nuen eta baietz esan nion. Osinalden kantatzea handia izan behar zuela pentsatzen nuen beti.

Amets bat egi bihurtzea bezala izan da. Gozatu egin dut. Bertso txarrak ere kantatu nituen baina gozatu egin nuen.

Aztirin jokatu zenuen. Ateratik Aztirira, alde handia egongo zen.

Izugarria. Atera-n denak balio zuen bezala, hemen jendea ixilik egoten da. Afari batean bueltan bai baina, presioa handia da. Jendea ixil-ixilik, zu pentsatzen, jendea zure zain, presioa geroz eta handiagoa, geroz eta denbora gehiago pentsatzen, presioa geroz eta handiagoa... Oso ezberdina. Baina noski, presio hori gaingitzen baldin baduzu, poza ere bikoitza.

Geroz eta garbiago al daukazu bertsolaria izan

nahi duzula?

Benoa ez. Nik pentsatzen dut lasai hartu behar dela. Etortzen zaizkizun saioetara joan, ondo pasa eta aurreratzeari lortzen baduzu nahi-koa. Baina tope bat baduzu, iritsi zaren lekura iritsi eta kitto. Behintza zerbait egiteko gai bagara, eta gustura.

Beasaingo Herri Antzokian, Lizaso eta Egañaren ondoan bertsotan aritzeko aukera ere izan zenuen.

Ur handitan sartu nintzen. Ni ez nengoen prest horiekin eta horrela kantatzeko. Baina horrelako aukera bati ezetz esan behar diozu? Ez naiz damutzen batere. Oso gaizki kantatu nuen baina ez naiz damutzen. Egañaren ondoan kantatzea...

Zer sentitzen da Egañarekin abestean?

Eseri ginen momentutik, izugarrizko presioa sentitzen nuen. Nire ondo-ondotan zegoen. Han zer egiten nuen galdetzen nion nire buruari. Lehenengo ofizioan gainera, Lizaso eta besteren bat atera ziren. Atzetik begira nengoen, ni han, flitpatzen... Gero beraiekin kantatzea. Izugarrizko okasioa izan zen.

Urduri?

Bai. Zure mailakoekin zabiltzanean ideia pilo bat etortzen zaizkizu. Haiekin, beraiek kantatu eta ni oraindik, zer kantatu ez nekiela. Ideiarik ez zitzaidan etortzen. Bukaera pentsatu gabe hasten nintzen askotan. Damutu ez naiz egiten behintzat.

Harrezkero saio gehiago izan al dituzu?

Saio batzuk bai. Olaberretik deitu ziguten kantatzeko, afari batean. Ainhoa eta biok joan ginen. Lazkaon ere kantatu nuen. Idiazabalen Herri Ekimenaren aldeko afari batean ere bai... Ez dut esaten izugarrizko saioak direnik, baina ondo. Iker Zubeldiak behin hala esan zidan: hi joan hadi saio guztiera. Igual zio, non deken edo zeinekin deken. Jendearekin eta plazarekin kontaktu hori hartzea eta ohitzea oso ona da. Deitzen badidate, edozein saiotara joango naiz. Gainera, gustatzen zaidan gauza bat da.

Jendeaurrean egoten ikasteko beharrezkoa izango da hori ezta?

Bai. Nik uste dut behar-beharrezkoa dela. Egia esanda, oraindik ez dut gainditu jendearen aurrean egote hori. Asteartean Lazkaon kantatu genuen, eta igo nintzenez eta eseri nintzenez, jende ikusi eta... Jendeak badauka zerbaite, urduri jartzen nau. Ni kantatuta nago parrandan lagunekin, lasai-lasai, presiorik gabe. Lagun berdinak, elkarte batean jarri, eta urduri jartzen



naiz. Pentsatzen jarrita, parrandako lagun berdinak gara eta zergatik jartzen naiz urduri? Ixiltasun horrek, denak zuri begira egote horrek... urduri jartzen nau. Niri eta beste askori ere bai.

Odei Lopez eta Ainhoa Mujika aipatu dituzu. Astero elkartzan zarete, edo nola antolatzen zarete?

Astelehenetan gelditzen gara Odeiekin eta Ainhoarekin. Asteartetan, Aitzol Barandiaran, Iker Zaldua, Iban

Sukiarekin gelditzen naiz, Ataunen. Bertso eskola moduko bat antolatuta daukaugu Ataunen eta giro ederrean, beste bertso eskola bat egin dugu. Odei ere etortzen da Atauna. Bi talderekin elkartzan naiz astero.

Ikasteko eta ondo pasatzeko ondo etortzen zait. Ni bertsotan hasi nintzenez, ondo pasatzeko zen. Nik bertsoekin gozatu egiten dut oraindik, eta ea urte askoan gozatzen dudana. Ni gehienbat, ondo pasatzeko

elkartzen naiz. Bertsoa ondo pasatzeko gauza bat da. Gainera merkea da. Ikasi, kantatuz ikasten da.

Bertsolari sentitzen al zara?

Batzutan baietz iruditzen zait eta besteetan ez. Ondo kantatzen dudana saio batean, bertsolari sentitzen naiz baina beste batzutan, gaizki kantatzen dudanean, animoa behera erortzen zait. Orduan galdetzen diot nire buruari, ea benetan bertsolaria naizen. Sasibertsolaria izango naiz. Bertsolari-berbtsolari ez naiz sentitzen.

Zein ezaugarritako bertsolaria zara?

Zortziko txikikoan, umore ikutukoetan, ez naiz hain ondo moldatzen, Iker Zubeldia bezala adibidez. Hausnarketa behar duten gaietan hobeto moldatzen naizela uste dut. Erosoena lan horretan sentitzen naiz. Zer esana daukan gaietan hobeto moldatuko nintzatekeela uste dut. Umore gaietan kosta egiten zait. Berez gustatzen zait barre egitea, hizketan ari naizenean ere bai. Baina bertsotan, ez dut lortzen barre eragitea.

Plazak lortzea erraza izaten al du hasiberri batek.

Niri erraza suertatzen zait, deitzen didatenean baietz esan eta kitto. Bila ez naiz joaten. Gaur egun oso zaila dago. Bertsolari asko gaude eta bertsolari berdinek betetzen dituzten plaza gehienak. Plaza onak lortzea nahiko zaila dagoela iruditzen zait ni bezalako bertsolari gazteentzat.

Bertsorik jartzen al duzu?

Pentsatu izan dut eta prestatu ere egin ditut bertsoak baina gero ez naiz ausartu bidaltzera. Badaukat lehia-ketaren batean parte hartzeko asmoa. Gainera, oso ariketa ona da, denerako. Erri-mak, neurriak eta puntuak lantzeko oso ona da. Nahi adina denbora daukazu ideiak pentsatzeko. Gustatzen zait gai bat hartu eta bertsoak idaztea.

Jendearekin eta plazarekin kontaktua hartzea eta ohitzea oso ona da. Deitzen badidate, edozein saiotara joango naiz. Gainera, gustatzen zaidan gauza bat da.

Lazkao

Maizpideko Udako ikastaroetako ekitaldiak

Uztailak 23, osteguna:

18:00etan: Trikibertsopoteoa: Endika Igartzabal eta Gorka Maiz bertsolariak eta Joseba Iztueta eta Ibon Maiz trikitilariak. Lazkaoko tabernetan hasi eta Maizpideko jangelan bukatuko da.

Abuztuak 5, asteazkena:

21:30ean: Biderditan: Koldo Amestoy ipuin kontalaria. Maizpideko Zinema aretoan.

Abuztuak 13, osteguna:

21:30ean: Bertso-trama: Igor Elortza, Jon Maia, Iker Zubeldia eta Uxue Alberdi. Tramagilea: Josu Goikoetxea. Maizpideko Zinema aretoan.

Abuztuak 20, osteguna:

21:30ean: Prefosta musika taldea. Maizpideko Zinema aretoan.

Abuztuak 27, osteguna:

20:00etan: Dani Oiarbide eta Pello Urdangarin trikitilariak, Maizpideko jangelan.

Irailak 3, osteguna:

21:30ean: Antzerkia: May Gorostiagaren Clown saioa. Maizpideko Zinema aretoan.

Aztiria

Santa Marina jaiak

Uztailak 17, ostirala:

18:00etan: Kanpai joaldia eta etxafuego jaurtiketa.

18:30ean: Neska-mutiko eta gaztetxoentzat jokoak eta txokolate jana.

19:00etan: Bola eta toka auzotarrentzat.

21:00etan: Auzo afaria Aztiri erretegiaren, Legazpi taldeak alaiturik.

Uztailak 18, larunbata:

11:00etan: Meza Nagusia.

12:00etan: Aztiriko XIV. Patata tortilla lehiaketa.

Ondoren: Salda, pinto, patata tortilla eta ardo banaketa izango da plazan, 'Katain eta Eguskitza' trikitilariak alaiturik.

16:30ean: IV. Helduen eta gazteen arteko futbol partida Gainzabal zelaian.

18:30ean: Idi-proba erakustaldia: Legazpiko Arizti eta Legazpiko Julian Telleriaren idi arteko norgehiagoka.

19:00etan: Bola eta toka lehiaketa.

Arratsalde osoan: Trikitilariak.

23:00etan: Kuluxka taldea.

Uztailak 19, igandea:

10:00etan: Goiz eresia Gabiriako txistulariekin.

11:00etan: Aztiriko V. mendi lasterketa.

12:30ean: Gabiriako Goruntz dantza taldearen saioa.

13:00etan: 'Katain eta Eguskitza' trikitilariak alaiturik, mendi lasterketaren sari banaketa.

18:00etan: Trikitilariak arituko dira kioskoan.

18:30ean: Herri kirol erakustaldia: Azurmendi eta Ugarteburu aizkoran; Larrarte ahizpak trontzan eta Goenatxo harri jasotzen.

19:00etan: Gipuzkoako bola txapelketa.

Ilundu arte, trikitilariak ibiliko dira aurtengo festei eman arte.

Ikaskide
irakaskuntza eta pedagogia

UDAKO MATRIKULA ZABALIK!

ESKOLA LAGUNTZA - TAILERRAK
UNIBERTSITATE MAILA
INFORMATIKA - MEKANOGRAFIA
IKASKETA TEKNIKAK
INGELERA

Joan Iturralde, 5 - Beasain
943 160 120 (arratsaldean)
www.ikaskide.net

ZAHARRA • BERRI
IGELTSERITZA ETA ERAIKUNTZA

A. Almeida
943 180 372
651 700 439
aiakoerrot@terra.es
ATAUN



Eraikuntzak
Gremioen koordinaketa
Erreforma orokorrak
Teilatuak

Segura

Erdi Aroko I. Aste kulturala

Uztailak 16, osteguna:

19:30etan: 'Landarbaso abesbatza'. Kutzak sustatutako ekintza. Komentuan.

Uztailak 17, ostirala:

19:00etan: Linuaren prozesua, teoria eta praktikaren erakustaldia, plazan. Hizlaria. Jaione Isazelaia.

Uztailak 18, larunbata:

22:00etan: Alurr dantza taldearen 'Sua' ikuskizuna, plazan (Eguraldi txarra bada, Baratze pilotalekuan).

Erakusketa

Abuztuaren 1a bitartean, XVI. mendeko arropen erakusketa izango da ikusgai Ardixarra etxean, Iraultza Dantza Taldeko Ramon Garcia diseinatzailearen eskutik.

Ataun

Organo barrokoaren Nazioarteko III. jaialdia

Uztailak 18, larunbata:

20:00etan: Conductus Ensemble. Alize Mendizabal organojolea eta Andoni Sierra zuzendaria.

Idiazabal

San Inazio eguna

Uztailak 31, ostirala:

12:00etan: Meza San Inazio ermitan. Ondoren hamai-ketakoa eskainiko du Udalak.

18:00etan: Sega erakustaldia.

Ondoren: Sagardo dastaketa.

24:00etan: Txerri harrapaketa.

Ondoren: Dantzaldia.

Abuztuak 1, larunbata:

15:30etan: Mus txapelketa.

17:00etan: Haurrentzat jolasak.

Ondoren: Koadrilen arteko jolasak.

21:30etan: Bertso afaria.

Gauean: Kontzertua.



Zerain

Andra Mari festak

Abuztuak 13, osteguna:

20:00etan: ohiko gibel-jatea Liztormendi Elkartean.

Abuztuak 14, ostirala: umeen eguna:

Egun osoan zehar, puzgarriak plazan.

13:00etan: Haur bazkaria Ostatuan.

16:00etan: Haur jolasak eta merienda.

20:00etan: Pregoia, suziriak eta kanpai-bueltakoak festei hasiera emateko. Segidan Sagardo-edana eta txekor jana (txekorra egun guztian zehar burruntzian erretzen egongo da).

23:30etan: Erromeria Trakets taldearekin.

Abuztuak 15, larunbata: Andra Mari eguna:

9:00etan: Txistularien goiz-eresia etxez-etxe.

11:00etan: Meza Nagusia.

11:30etan: Herriko gaztetxoaren pilota partidak.

12:30etan: Txakolin dastaketa.

17:00etan: Bola txapelketaren bigarren saioa.

18:00etan: Herriko eta inguruko aizkolarien saioa.

19:00etan: 40 urtetik gorakoen V.dantza suelto txapelketa.

20:00etan: Trikipoteoa Dani Oiarbide eta Pello Urdangarin trikitilarekin.

21:00etan: Gazte afaria (Tikeak Mandio dendan salgai)

23:00etan: Erromeria Lauki taldearekin.

01:00etan: Asto lasterketa

Abuztuak 16, igandea: San Roke eguna:

9:00etan: Txistularien goiz-eresia etxez etxe.

10:00etan: San Roke bola txapelketaren hasiera. Izene-matea 9:30etatik aurrera.

12:00etan: Meza Nagusia. Ondoren, herriko agintarien soka dantza.

17:00etan: Bola txapelketaren azken saioa.

17:00etan: Kokolo eta Mokolo pailazoak.

20:30etan: Herri afaria. Bertsoan: Sebastian Lizaso eta Iker Zubeldia.

Ondoren, Laket taldearekin dantzaldia goizaldera arte.

Abuztuak 17, igandea:

15:30etan: Herri txukuntzea.

Goierri

'Goierri oporretan ere irekita'

Uztailak 22 eta 29:

Ordiziako azokari bruzuko dokumentala eta azokara bisita gidatua. Erreserba: 943882290.

Uztailak 30:

Aizkorri-Aratz parke naturalean zehar bisita gidatua, aniztasun kulturala, naturala eta paisajea ezagutuz. Erreserba: 943802187.

Uztailak 18:

Arkaka haranean zehar bisita gidatua. Erreserba: 943882290.

Uztailak 21 eta 28:

Ormaiztegiko zubira bisita gidatua. Erreserba: 943889900.

Uztailak 23:

Idiazabalen, gatzandegira bisita. Erreseba: 943788203.

Uztailak 24 eta 31:

Ataunen, Aralar parke naturalean zehar, bisita gidatua, aniztasun kulturala, naturala eta paisajea ezagutuz. Erreserba: 943882290.

Zaldibia

Txamarretzeko festak

Uztailak 18, larunbata:

19:00etan: Iztueta dantza taldea.

19:30ean: Toka txapelketa. Izena ematea 19:00etatik

19:30era: Urteroko usadioa jarraituz, Arrese jatetxeak eskainita, ardoa aterako da.

20:00etan: Bertsolariak: Iker Zubeldia eta Amaia Agirre.

21:00etan: Afaria Arrese jatetxean (Txartelak bertan egongo dirasalgai). Afalondoren, bertso eta trikitixa.

24:00etan: Erromeria, Agurtzane eta Jon Elustondo trikitilariekin.

Balaitusera irteera

Gailurrerantz Kirol Elkarteko Mendi Sailak, Balaitusera mendi irteera antolatu du, uztailaren 18tik 19ra. Irteera ordua: goizeko 8,30etan, plazan. Lehenengo egunean, Respomusoko aterpetxeraino joango dira. Igandean berri, Balaitus (3.151 m.) mendiko gailurra igotzen saiatuko dira mendizaleak. Pioleta eta kranpoiak eramatea beharrezkoa da.

**ZUBARA**
Eraikuntzak s.l.

Promozioak, Eraikuntzak,
Erreformatzak...

943 65 34 93 - 649 46 32 89
ABALTZISKETA

Kol. zkia.: 764



Nereia Larrea Oyarbide

Aho kirurgia
Implantologia
Periodontzia
Artikulazio eta ahoko minak

Dulce Maria Loinaz, 3 Beasain 943 088 118

Zatoz Zientziaren
aurpegi alaienaren bila!



gizarte ekintza
hezkuntza

www.miramon.org
943 01 24 78
DONOSTIA

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

kutxa



Ordizia errugbi elkartearen ligako lehen partida 1973an

Jose Luis de Castrok utzi digun argazkia 1973ko urriaren 28an Altamirako estadioan ateratakoa da. Bertan Ordizia-ko rugbilariek ligako lehen partida jokatu zuten Irungoen aurka eta 5-55 galdu zuten.

Zutik ezkerretik eskuinera: Miguel Angel Mujika, Xabier Andonegi, Jesus Mari Begiristain, Jesus Mari Ardanaz, Eugenio Aiestaran, Gracian Iturrioz, Juan Ramon Aiestaran, Juan Mari Olano, Jose Luis de Castro, Miguel Angel Gallego, Jose Luis Lasa eta Enrique Ulyar.

Pikotxean: Jose Luis Aranburu, Joaquin Perez de Viñaspre, Jose Ramon Txurruka, Bitor Hormaetxea, Santos Hormaetxea, Juan Ramon Aranburu, Juan Jose Arin, Jose Luis Arnaez, Pablo Nadal eta Javier Mendizabal.

PSIKOLOGI KLINIKOA

Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/01

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

**Helduen,
umeen,
bikoteen eta
sexologi
tratamenduak**

San Inazio, 14 BEASAIN
☎ 943 889 390

Garagartza pl., 1 ORDIZIA
☎ 943 805 327

San Franzisko, 8 TOLOSA
☎ 943 650 239

Lurrindergia eta opari gaiak

Bidaietan adituak

Kale Nagusia 42, behea **BEASAIN**
Tel.: 943 80 40 15 Faxa: 943 80 55 79
urraki@over.es www.over.es

**Erretegi bezala
zabalik**

- * Eguneroko menuak
- * Karta zerbitzua
- * Ospakizunak
- * Plater konbinatuak

Zubierreka,9 ☎ 943 16 25 23 LAZKAO



BARANDIARAN
zeramikak

ERREF. MAK DISEINUAK PROIEKTUAK BAINUAK HIDROMASAJA

SEMPERE KALEA, 7, 1. LOKALA BEASAIN
TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657
e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com

Goierritarra + GOIERRIKO **hitza** info

Abantailaz betetako elkarlana

Harpidedunen abantailak:

Egunero Hitza eta hamabostero Goierritarra etxean jasoko dituzu.

Zorion-agurretan deskontuak.

Zozketetan parte hartzeko aukera.

Harpidetza txartela

Urteko kuotak:

☐ **Goierri** 27 euro ☒ **Egin bat aukeratutako kaxan** ☐ **GOIERRIKO hitza** 67 euro

☐ **Goierri** + **GOIERRIKO hitza** 72 euro

Izen-abizenak:.....

Helbidea:.....

Herria:.....

Telefono zenbakiak:.....

NAN:.....

Kontu zenbakia(20 digitu):.....

Bidali txartel hau helbide honetara:
Goierritarra, Uribalde plaza 7 behea, Beasain

Harpidedunen arreta zenbakia: **902 82 02 01**

FLEXIBLELOWE
DISEINU AUSARTA, BERRIA
DESBERDINA



GISMOBEL
ALTZARI
MODERNOAK
LOGELA ETA
EGONGELARAKO
DISEINUKO
ALTZARIAK.

PROGRAMA
BERRIA
JUSEP TURELL
DISEINATZAILEA-
REN
ESKUTIK
AURKEZTU
DUTE.



LABARERE,VIBIA,
MONPAS,OSBORNE,
CUMELLAS

HINDIGO

METALEZKO
ALTZARIAK.
MAHAIK,
ARMAIRUAK,
APARADOREAK.
INDUSTRIAL
KUTXUKO
ALTZARIAK.

ETHNICRAFT
EGUR NATURELEZKO
ALTZARIAK
BAI HAITZEN EDO
TEKAN.DISEINUA
ETA BUKAERA ASKO
ZAINTZEN DUEN ETXEA.

DESIGNERS GUILD



TELAK,PAPER MARGOTUAK,OSAGARRIAK ETA ETXEARI
BEREIZTEN DIDEN KOLORE PALETA



BARNE DISEINUA
ELOSEGI 20 20210 LAZKAO
TLF 943088207
ataridiseinua@euskalnet.net

D
E
K
O
R
A
Z
I
O

I
N
T
E
G
R
A
L
A

